



Lehiaren
Euskal Agintaritzak

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA OHARRA

LEHIAREN AGINTARITZAK TURISMOARI BURUZKO LEGE BERRIAN BEHARRIK GABEKO SARRERA-OZTOPO HANDIAK DAUDELA OHARTARAZI DIO EUSKO JAURLARITZARI

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) Lege Aurreproiektua sakon berraztertzea aholkatu du, bai eta operadore berriak sartzeko oztopo guztiak ezabatzea ere.

Merkataritza-politikari buruzko gaiei dagokienez zerbitzuen eskaintzan ezin duela eragin edo merkatu-banaketa laguntzen duten jokabiderik ezin duela sortu adierazi du Lehiaren Agintaritzak Turismoaren Euskal Legearen Aurreproiektuari buruz egindako txostenean.

LEAk nabarmendu du edozein enpresa-sektoretan aplikatzeko sortutako arau batek, gizarte-eskaera berriei erantzuteko kezka agertzen duenak, sektorean berrikuntza, malgutasuna eta eskaintza-askatasuna errespetatu behar dituela.

Bilbo, 2015eko abuztuak 10

Lehiaren Euskal Agintaritzak Euskal Turismoaren Lege berriaren aurreproiektuari buruzko txostena igorri dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari. Txostenean adierazitako hainbat alderdi, LEAren iritziz, operadore berriak turismo-merkatuan sartzeko oztopo handiak dira; hala bada, horiek kentzeko eskatu du merkatuetako lehia askea babesten duten legeen aurkakoak direlako.

LEAk gogora ekarri duenez, «jarduera-sektore jakin batean enpresa-askatasuna mugatzeko esku hartu beharra egiaztatzen ez bada, administrazioak baimendu ez ezik, bermatu ere egin behar du kalitate, prezio eta gainerako ezaugarriei dagokienez bereizten diren eskaintzak daudela». Lehiaren Agintaritzaren iritziz,



lege-aurreproiektuko zioen azalpenak ezarritako helburuak ez dira oso zehatzak eta interpretatzen zailak dira.

Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektuak nahitaezko erregistroko eta erantzukizunpeko adierazpeneko sistema bat aukeratu du, eta horrek oztopo handiak sortzen ditu sektorean zerbitzu-eskaintzaile berriak sar daitezen. Turistak babesteko helburu bera lor liteke borondatez erregistratzeko sistema batekin batera operadoreek egindako eskaintzetan ostatuen baldintza guztiak zehatz-mehatz jasota daudela bermatuz gero, eta horrek ez luke lehia horrenbeste mugatuko.

LEAren ustez banakako apartamentuak eta logelen alokairua nahitaez turismo-etxebizitzaren erregistroan inskribatu beharra operadore berriak sartzeko justifikatu gabeko oztopoa da, eta aurreproiektutik ken dezaten eskatu du, hortaz. Bestelako alderdiak kentzeko ere eskatu dute, hala nola «ustiapen-batasunaren printzipioa» eta baterako ustiapenari ezarritako mugak, edo kaleko salmentari ezarritakoak; «turistikoa», «oporretakoa» izenaren edo antzekoen erreserba eta bidaia-agentzientzako jarduera-erreserba edo -mugak ere kendu behar dira aurreproiektutik.

Halaber, aurreproiektuak lehia desleialari eta intrusismo profesionalari «jarduera klandestinoekin» lotuta egindako erreferentziak ere kendu behar dira aurreproiektuaren testutik, ez baitatoz bat aurretik ezarritako arau-parametroekin.

Azkenik, LEAren iritziz, arau-hausteen tipifikazioa zein aurreproiektuak horien aurrean aurreikusten dituen ondorioak neurritz kanpokoak dira. Hori dela eta, merkatuan sartzeko asmoa kentzea eragin dezakete, batez ere operadore txikiei dagokienez.

Arauak gehiegizko erreferentzia egiten die turismo-jarduerari muga handiak ekar diezazkioketen gaien arau-garapenei. Merkatuan sartzeko, erregelamendu bidez, jaso nahi den oztopo orok Legean ezarritako helburu zehatz bat lortzeko beharrezkoa dela egoki errespetatu eta justifikatu behar du, eta horrez gain, helburu bera lortzeko hain murriztailea ez den bestelako neurririk ez dagoela eta diskriminatzailea ez dela ere justifikatu behar du.



Errealitate berriei ekonomia eta kontrol tradizionalen parametroak aplikatzeak aurrerapena geldiarazten du, baina aurrerapen hori, teknologia berriek ahalbidetu eta sustatuta eta bezero eta eskaintzaileek eskatuta, geldieztina da. Ekonomiaren arlo berri hori «klandestinitate»ra kondenatzea ez da bateragarria agintaritza honek sustatu beharreko lehiaren printzipioekin.

Lehiaren Euskal Agintaritza Administrazioako erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailari atxikia, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan. Eginkizunen artean administrazio publikoarekin, botere legegileari arau-testuak proposatzeaz arduratzen den erakunde gisa, izan beharreko harremana nabarmentzen da.

Aurreproiektuari buruzko txostena Legeak LEAri lehia sustatzearen arloan aitortzen dizkion eginkizunen artean egiten da.

Txosten osoa hemen dago eskuragarri: (esteka)